DISPOSICIONES FINALES

Primera.- En lo no previsto en el presente Reglamento regirá con carácter supletorio las disposiciones normativas vigentes en cada momento en materia de disciplina deportiva del País Vasco.

Segunda.- El presente Reglamento entrará en vigor, tras de su aprobación en el seno de la Asamblea General de la Federación Vasca de Ciclismo, una vez que se encuentre aprobado por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y se encuentre inscrito en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

JOSE LUIS ARRIETA LAZKANO

PRESIDENTE FEDERACIÓN VASCA DE CICLISMO

LUIS I. IRISARRI ALLI

SECRETARIO GENERAL FEDERACIÓN VASCA DE CICLISMO

KIROL DIZIPLINAREN ARAUDIA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioa

KIROL DIZIPLINAREN ARAUDIA EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

I. TITULUA.- DIZIPLINA AHALMENA ETA ZIGORRAK ETA ARAU HAUSTEAK

I. kapitulua: Xedapen orokorrak

1. artikulua: Euskadiko Txirrindularitza Federazioak diziplina-ahalmena du Federazioko pertsona fisiko eta juridiko guztien eta federazio-erakunde horren egitura eratzen duten pertsona guztien gainean; baita kirol-federazioko kideak diren pertsona juridikoen edo erakundeen ordezkari jarraitzen dutenen gainean ere.

2. artikulua: Diziplina-ahalmenaren jardura-eremua jokoaren eta lehiaketaren arau-hausteak eta kirolaren arau-hauste orokorrak barne hartzen ditu, baldin eta horrela tipifikatzen badira Euskadiko Kirolaren Legean, diziplina-ahalmena arautzen duten arauko xedapen publikoetan. Halaber, barne hartzen ditu Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Estatutuetan eta Araudi honetan aurreikusitako arau-hausteak.

3. artikulua: Euskadiko Txirrindularitza Federazioari diziplina-ahalmena aitortzen zaio, diziplina hori bete behar duten pertsonak edo erakundeak ikertzeko, eta, hala badagokio, zigortzeko. Araudi honetan ezarritakoaren ondoretarako, ez da diziplina-ahalmentzat hartuko arau teknikoaren aplikazioan arbitroek eta epaileek eta komisarioek probak eta/edo lehiaketak zuzentzeko duten ahalmena, ezta federazio-organo eskudunek horiek berrikusteko duten ahalmena ere.

II. kapitulua: Arau-hausteak eta zigorrak

4. artikulua: Arau-hausteak bi motakoak izan daitezke:

- a) Jokoaren edo lehiaketaren arauak haustea edo urratzea.
- b) Kirolaren arau orokorrak haustea edo urratzea.



5. artikulua: Zigorrak ezartzerako garaian, helburua beti izango da kirol-interes orokorra defendatzea, eta, horrez gain, arau-hauslearen asmoa eta ekintzaren edo arau-haustearen ondorioa baloratuko dira.

Joko-arauak eta kirol-arau orokorrak hausteagatik diziplina-espediente bitartez zigorra ezartzen bada, zigor hori berehala betearaziko da. Hala ere, dagozkion errekursoak ezagut behar dituzten federazio-, administrazio- edo jurisdikzio-organoen eskumena izango dute kautelaz eteteko.

Pertsona juridikoei zigor ekonomikoa jar dakieke, eta pertsona fisikoei baita ere, beren jardueragatik ordainak edo konpentsazioak jasotzen badituzte.

I. atala: Arau-hausteetatik joko-arauetara eta horien zigorretara

6. artikulua: Jokoaren edo lehiaketaren arau-hauste izango dira Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako jokoaren edo lehiaketaren garapen normala urratzen, eragozten edo oztopatzen dutenak.

7. artikulua: Arau-hauste horien egile izan daitezke kirolariak, entrenatzaileak, teknikariak eta kirol-ordezkariek, eta baita epaileak, arbitroak edo komisarioak eta kirol-klubak edo kirol-taldeak.

Kirolariek, entrenatzaileek, teknikariek, ordezkariek eta zuzendariek egindako arau-hausteak eta dagozkien zigorrak.

8. artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kasu orotan, arau-hauste oso larriak izango dira honako hauek:

a) Arbitro-taldeko kide, zuzendari, kirol-zuzendari, taldekide, ikusle, eta, orokorrean, pertsona bati eraso egitea, eraso ekintza larria edo kaltegarria denean.

b) Proba behin betiko eteten duten ekintzak burutzea.



2.- Arau-hauste larriak:

Kasu orotan, arau-hauste larriak izango dira honako hauek:

- a) Aurreko artikulua a) atalean jasotako pertsoneri eraso egitea, erasoaren larritasun-mailarengatik arau-hauste oso larria ez denean.
- b) Arbitro-taldeko kide, zuzendari, kirol-zuzendari, taldekide, aurkari, entrenatzaile, ikusle, eta, orokorrean, pertsona bati mehatxu egitea, hertsatzea edo horren kontrako ekintza iraingarriak burutzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Kasu orotan, arau-hauste arinak izango dira honako hauek:

- a) Arbitroaren erabakiei protesta egitea behin eta berriz.
- b) Arbitroaren aginduen betetzerakoan jarrera pasiboa edo axolagabea izatea edo haren aginduak ez betetzea.

9. artikulua: Zigorrak.

Hauek dira aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteei aplika dakizkieken zigorrak:

- Arau-hauste oso larrien zigorrak:
 - a. Lizentzia kentzea urtebetetik gora, gehienez ere bost urtez ken daitekeelarik.
 - b. Lizentzia ukatzea.
 - c. 6.010,13 eta 60.101,21 euro arteko isuna.
 - d. Kirol-barrutia ixtea, hiru partidutik denboraldi osoraino.
 - e. Kargugabetzea eta funtzioetatik ezgaitzea urtebetetik gora, eta bost urtez gehienez ere.
 - f. Kategoriaz jaistea.
 - g. Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
 - h. Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
 - i. Probak edo lehiaketak egin bitartean, kirol-instalazioetarako sarbidea debekatzea urtebetetik gora, eta bost urtez gehienez ere.
 - j. Jokoak, probak edo lehiaketak atea itxita ospatzea.
 - k. Jardunaldi edo proba bati baino gehiagori dagozkion puntuak, partiduak edo sailkapen-postuak galtzea.

- Arau-hauste oso larrien zigorrak:
 - a. Lizentzia kentzea hilabetetik gora, eta urtebetez gehienez ere.
 - b. 601,02 eta 6.010,12 euro arteko isuna.
 - c. Kirol-barrutia ixtea, bi partiduraino.
 - d. Kargugabetzea eta funtzioetatik ezgaitzea, urtebetez gehienez ere.
 - e. Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
 - f. Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
 - g. Probak edo lehiaketak egin bitartean, kirol-instalazioetarako sarbidea debekatzea urtebetez gehienez.
 - h. Jokoak, probak edo lehiaketak atea itxita ospatzea.
 - i. Jardunaldi edo proba bati dagozkion puntuak, partiduak edo sailkapen-postuak galtzea.
 - j. Kargu-hartze pribatua.
 - k. Kargu-hartze publikoa.

- Arau-hauste arinen zigorrak:
 - a. Lizentzia kentzea, hilabetez gehienez.
 - b. 601,01 eurorainoko isuna.
 - c. Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
 - d. Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
 - e. Kargu-hartze pribatua.
 - f. Kargu-hartze publikoa.

Arbitro-taldeko kideek eta/edo komisarioek egindako arau-hausteak eta haiei dagozkien zigorrak.

10. artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kasu orotan, arau-hauste oso larriak izango dira honako hauek:

- a) Kirolari edo talde batzueganako jarrera partziala dutela egiaztatzea.

- b) Ekitaldiko akta idaztea, aldatzea edo manipulatzeko, oharrak proban gertatutakoarekin bat ez etortzeko, edo informazioa maleziatsua edo faltsua ematea.



2.- Arau-hauste larriak:

Kasu orotan, arau-hauste larriak izango dira honako hauek:

- a) Proban dagozkion funtzioak betetzeari uko egitea, edo izendapena ekiditeko kausa faltsuak argudiatzea.
- b) Proba batera justifikaziorik gabe huts egitea.
- c) Proba bat bertan behera uztea, Araudiak horretarako ezartzen dituen baldintzak eman ez arren.

3.- Arau-hauste arinak:

Kasu orotan, arau-hauste arinak izango dira honako hauek:

- a) Pertsonaren baten kontrako adeitasun falta edo irainak eta hari modu edo hitz okerrekin mintzatzea.
- b) Pasibotasuna, kirokariak edo taldeetako parte-hartzaileek kiroltasunik gabeko jarrerak dituztenean.

11. artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteei aplika dakizkieken zigorrak Araudi honen 9. artikuluan aurreikusitako berdinak izango dira.

Kirol-klubek eta kirol-taldeek egindako arau-haustek eta dagozkien zigorrak.

12. artikulua: Arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kasu orotan, arau-hauste oso larriak izango dira honako hauek:



a) Inolako arrazoirik gabe proba batera ez bertaratzea edo proba batean parte hartu nahi ez izatea, taldeak derrigorrez bertaratu behar duenean.

b) Talde batek arrazoirik gabe proba uztea, behin proba hasita dagoenean.

2.- Arau-hauste larriak:

Kasu orotan, arau-hauste larria izango da xedapen teknikoak ez betetzea, horren ondorioz proba bat etetzen denean, edo arduragabekeriak jokatzeagatik pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen denean.

3.- Arau-hauste arinak:

Kasu orotan, arau-hauste arina izango da proba batean lizentziarik ez aurkeztea, edo, lizentziarik ezean, lizentzia hori izapidetzen ari dela egiaztatzen duen behin-behineko baimena ez aurkeztea.

13. artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteei aplika dakizkieken zigorrak Araudi honen 9. artikuluan aurreikusitako berdinak izango dira.

II. atala: Kirol-arau orokorrak haustea eta zigorrak

14. artikulua: Kirol-arau orokorrak urratzen direla iritziko zaio, indarrean dagoen Euskadiko Kirol Legean, diziplina-ahalmena arautzen duten arauko xedapenetan, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Estatutuetan eta haren araudietan ezarritakoari kontra egiten dioten ekintzak edo arau-hausteak gauzatzean, nahiz eta ekintza eta arau-hauste horiek aurreko atalean ez jaso.

15. artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.- Arau-hauste oso larriak:



Kasu orotan, arau-hauste oso larriak izango dira honako hauek:

- a) Laguntzak eta diru-laguntzak emakida-oinarrietan edo akordioetan ezarritakoez bestelako helburu baterako erabiltzea.
- b) Laguntzak eta diru-laguntzak esleitzeko eskatzen diren benetako datuak eta agiriak nabarmen aldatzea.
- c) Eskuduntzak edo gaitasunak legez kontra usurpatzea.
- d) Diziplina- edo hauteskunde-organoetako kideek estatutuak eta arauak oso modu larrian haustea.
- e) Kirol-instalazioen segurtasunari eta higienerari buruzko federazio-arauak ez betetzea, horren ondorioz erabiltzaileak arrisku larrian jartzen badira.
- f) Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak hausten dituzten kirol-jarduerak antolatzea, jarduera horiek hirugarrenentzako oso arriskutsuak badira.
- g) Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren estatutuak, arauak eta akordioak behin eta berriz eta modu nabarmenean ez betetzea.
- h) Epailerei edo komisarioei, kirolariei, teknikariei, kirol-autoritateei eta proba eta lehiaketa ofizialetan nahiz ez-ofizialetan parte hartzen dutenei eraso egitea, hertsatzea edo mehatxu egitea.
- i) Agintekeria.
- j) Proba edo lehiaketa bat gauzatea eragozten duen edo behin behinean edo behin betiko eteten duen protesta edo jarduera kolektiboa.
- k) Kirolariek, teknikariek, komisarioek, epaileek eta zuzendariak indarkeria sustatzen duten aitorpen publikoak eta jarduerak egitea.
- l) Kirol-jarduera garatzeko esleitutako funts publikoak nahita modu desegokian erabiltzea.



- n) Lehiaketa ofizialen edo ez-ofizialen emaitza baldintzatzeko ekintzak edo arau-hausteak gauzatzea.
- ñ) Arau-hauste larriek edo oso larriek ezarritako zigorrak ez betetzea.
- o) Arau-hauste behin eta berriz larriak egitea.
- p) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak ez betetzea.
- q) Kirol-modalitatearen garapena edo praktikari larriki erasotzen dion beste edozein portaera.
- r) Kirol-materiala edo ekipamendua arau teknikoen kontra manipulatzeko edo aldatzea, pertsonalki edo hirugarren baten bitartez, horrek probaren edo lehiaketaren segurtasunari eragiten dionean edo pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen denean.

2.- Arau-hauste larriak:

Kasu orotan, arau-hauste larriak izango dira honako hauek:

- a) Falta arinengatik ezarritako zigorrak ez betetzea.
- b) Diziplina- edo hauteskunde-organoetako kideen funtzioak etetea edo bertan behera uztea, ondorioz haien betebeharrak modu larrian hausten ez badira.
- c) Euskadiko Txirrindularitza Federazioko selekzioen deialdietara arrazoirik gabe ez bertaratzea.
- d) Probaren edo lehiaketaren ohiko garapenari eragiten dion protesta bat duen protesta, baina proba eten gabe.
- e) Epailerei, teknikariei, komisarioei, entrenatzaileei, kirol-autoritateei, kirolariei edo publikoari irainak botatzea.
- f) Epailleen, komisarioen edo teknikarien jarduerak burutzea titulurik edo baimenik gabe.
- o) Arau-hauste arinak errepikatzea.



- h) Kirol-jarduera, proba edo lehiaketa ofizialak baimenik gabe antolatzea.
- i) Dagokion funtzioekin bateraezinak diren jarduera publikoak edo pribatuak burutzea.
- j) Kirol-lehiaketa batean mantendu beharreko duintasuna edo ohorea modu nabarmenean edo publikoki urratzea.
- e) Kirol-instalazioen segurtasunari eta higienezari buruzko federazio-arauak ez betetzea, horren ondorioz erabiltzaileak arrisku larrian jartzen badira.
- g) Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren estatutuak, arauak edo akordioak ez betetzea.
- f) Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak hausten dituzten kirol-jarduerak antolatzea, nahiz eta hirugarrenentzat arriskurik ez sortu.
- n) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ez betetzea hamasei urtetik beherakoek atxikipen-, luzapen-, prestakuntza- eta konpentsazio- eskubideak edo antzekoak eskatzeko debekua.
- ñ) Pertsona eta organo eskudunek emandako aginduak, akordioak eta jarraibideak ez betetzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Kasu orotan, arau-hauste arinak izango dira honako hauek:

- a) Epailerei, komisarioei, teknikariei, kiro-autoritateei, kirolariei edo publikoari oharrak modu zuzenean ez egitea.
- b) Epailiek eta gainontzeko kirol-autoritateek haien funtzioak betez emandako aginduen eta jarraibideen aurrean jarrera pasiboa izatea.
- c) Diziplina- edo hauteskunde-organotako kideen funtzioak etetea edo bertan behera uztea, ondorioz haien betebeharrak modu oso larrian hausten ez badira.



d) Federazio-antolakuntzako kideei edo erakundeei begirunerik gabeko adierazpen publikoak edo iraingarriak egitea.

e) Kirol-arauen kontrako jarrerak, arau-hauste oso larriak edo larriak ez badira.

16. artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteei aplika dakizkieken zigorrak Araudi honen 9. artikuluan aurreikusitako berdinak izango dira.

II. kapitulua: Erantzukizuna amaitzea

17. artikulua: Erantzukizuna amaitzeko kausak.

1.- Kirolaren diziplina-erantzukizuna arrazoi hauengatik amai daiteke:

a) Zigorra betetzea.

b) Arau-haustea preskribatzea.

c) Zigorra preskribatzea.

d) Erruztatua edo zigortua hiltzea.

e) Erruztatutako edo zigortutako kirol-erakundea desagertzea.

f) Zigorra barkatzea.

2.- Federazioko kide izateari uzteak kasu batzuetan ezarritako zigorren eraginkortasunari eragin diezaioke, baina ez da diziplina-erantzukizuna amaitzeko kausa izango.



18. artikulua: Arau-hausteak eta zigorrak preskribatzea.

1.- Arau-hausteak hiru urtera preskribatuko dira, arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak diren ikusita, eta preskripzio-epea arau-haustea egin den egunean bertan hasiko da. Jarduera jarraituetatik emandako arau-hausteen kasuan, zenbatzen hasteko data jardueraren amaiera-data izango da, edo arau-haustea eragiten duen azkeneko jarduera-data.

2.- Preskripzio-epea etengo da prozedura zigortzailea abiarazi dela jakinarazten denean. Prozedura hori hilabete baino gehiago geldirik badago prozedura horri lotutako pertsona edo erakunde arduradunari egotz ezin dakioken arrazoi batengatik, dagokion epea berrezarriko da.

3.- Zigorrak hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatzen dira, arau-hauste oso larriak, larriak edo arinak diren kontuan izanik. Bestalde, zigorra ezarri zuen ebazpena behin betiko bihurtu eta hurrengo egunean hasiko da preskripzio-epea, edo haren betearazpena hausten den egunetik, hasita badago.

19. artikulua: Zigortuek birgaituak izan eta aurrekariak deuseztatzeko eskubidea dute. Horretarako, zigorra bete eta hauetan eskaera egin beharko dute:

a) Sei hilabetera, zigorra arau-hauste arin baten ondorioa bada.

b) Bi urtera, arau-hauste larri batengatik.

c) Lau urtera, arau-hauste oso larria balitz.

Birgaitzeko eskaera zigorra ebatzi zuen organo beraren aurrean egingo da, eta epaitzeko eta arau-haustearen zigorra ezartzeko prozedura berdina jarraituko da, errekurso berdinak erabilita.

IV. kapitulua: Erantzukizunari eragiten dioten egoerak.

20. artikulua: Kasu hauetan, arau-haustea jokoaren edo lehiaketaren arau-hausteen gaineko erantzukizunetik salbuetsita daude:

a) Ustekabeko gertaera.

b) Ezinbesteko arrazoia.



c) Eraso bat saihesteko defentsa legitimoa.

21. artikulua: Erantzukizunari eragiten dioten egoerak.

1.- Diziplina-erantzukizunari eragiten dioten egoerak aringarriak eta larrigarriak izan daitezke.

2.- Hauek dira kirol-arau orokorren aurkako arau-hausteei aplika dakieken egoera aringarriak:

a) Arau-haustea egin aurretik probokazio nahikoa izatea.

b) Berez damutzea.

c) Egindako kaltea zuzentzea, aldeztu aurretik eta modu espontaneoan bada betiere.

3.- Aurrekoez gain, hauek ere joko- eta lehiaketa-arauen aurkako arau-hausteei aplika dakizkieken egoera aringarriak dira:

a) Kirol-bizitza osoan inoiz zigortu ez izana.

b) Sortutakoa kaltea baino kalte txikiagoa eragiteko asmoa.

4.- Hauek dira kirol-arau orokorren aurkako arau-hausteei aplika dakieken egoera larrigarriak:

a) Errepikatzea.

b) Prezioa.

5.- Aurrekoez gain, hauek ere joko- eta lehiaketa-arauen aurkako arau-hausteei aplika dakizkieken egoera larrigarriak dira:

a) Arbitroen erabakiei berehalakoan men ez egitea, jarrera hori arau-hauste gisa sailkatuta ez badago.

b) Lehiaketa bat behar ez bezala garatzea arau-hauste baten ondorioz.

c) Ikusle gisa bertaratzean arauak haustea, federazio-lizentzia edukita, arau-hauslea jokalaria, eskuordetutako entrenatzaile nahiz arbitro izan.

d) Aktan ekipoko kapitain izatea.



e) Berrerorlea izatea. Berrerorlea da denboraldi berean aurretik ere zigorra jaso duena, kirol-diziplinaren arauetan larriagoan larritasun bereko edo handiagoko urratze bat egin duelako edo larritasun gutxiagoko bi urratze edo gehiago egin dituelako.

6.- Diziplina-organoek kirol-diziplina ezartzeko ahalmena dute, eta egoki deritzen mailako zigorrak jar ditzakete, kontuan izanik gertatutakoa, arau-hauslearen izaera, eragindako ondorioak eta egoera larrigarriak edo aringarriak ematea.

V. kapitulua: Kirol-diziplinaren antolakuntza

22. artikulua: Diziplina-epaile bakarrak eta apelazio-epaile bakarrak dute Euskadiko Txirrindularitza Federazioko diziplina-ahalmena.

I. atala: Diziplina-epaile bakarra

23. artikulua: Diziplina-epaile bakarra pertsona bakarreko organoa da, eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatzen du.

2.- Diziplina-epaile bakarra 4 urterako izendatuko da. Edonola ere, izendapena hurrengo denboraldietan ere errepika daiteke.

3.- Zuzendaritza Batzordeak diziplina-epaile bakarra kargugabe dezake, arrazoi justifikatuak badaude eta ebazpen arrazoitua ematen bada.

4.- Diziplina-epaile bakarrak arloari buruzko ezagutza zehatzak izan beharko ditu, edo esperientzia frogatua funtzio-mota horietan.

5.- Zuzendaritza Batzordeko kide batek ezingo du diziplina-epaile bakar izan.

24. artikulua: Diziplina-epaile bakarraren eskumena da joko-arauak, kirol-arau orokorrak edo lehiaketa-arauak urratzetik eratorritako diziplina-aztiak lehen auzialdian ebaztea.

II. atala: Apelazio-epaile bakarra



25. artikulua: Apelazio-epaile bakarria pertsona bakarreko organoa da, eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatzen du.

2.- Apelazio-epaile bakarria 4 urterako izendatuko da. Edonola ere, izendapena hurrengo denboraldietan ere errepika daiteke.

3.- Zuzendaritza Batzordeak apelazio-epaile bakarria kargugabe dezake, arrazoi justifikatuak badaude eta ebazpen arrazoitua ematen bada.

4.-Apelazio-epaile bakarrak arloari buruzko ezagutza zehatzak izan beharko ditu, edo esperientzia frogatua funtzio-mota horietan.

5.-Zuzendaritza Batzordeko kide batek ezingo du apelazio-epaile bakar izan.

26. artikulua: 1.- Apelazio-epaile bakarraren eskumena da diziiplina-epaile bakarrak emandako ebazpen guztien kontra jarritako errekursoak ezagutzea.

2.- Halaber, apelazio-epaile bakarraren eskumena da lehiaketa-batzordeak eta lurralde-federazioetako diziiplina-epaileak emandako ebazpenen aurka jartzen diren errekursoak ezagutzea, estatutuek eta haien arauak hala jasotzen badute.

3.- Apelazio-epaile bakarrak hartutako erabakiei aurka egin dakieke Kirol Justiziaren Euskadiko Batzordean.

II. TITULUA.- DIZIPLINA PROZEDURAK

I. kapitulua: Oinarri orokorrak

27. artikulua: Diziiplina-prozedurak

1.- Diziiplina-erantzukizunak ohiko eta ezohiko prozeduren bitartez araziko dira.

2.- Ezohiko prozedura lehentasun- eta sumario-printzipioetan oinarritzen da, eta joko-arauen eta lehiaketa- arauen urratzei aplikatuko zaie funtsean.



28. artikulua: Diziiplina- eta zigor-erantzukizunak aldi berean gertatzea.

1.- Diziiplina-organoak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, delitu edo zigor-falta izan daitezkeen gertakarien berri eman beharko dio Ministerioa Fiskalari. Kasu horretan, diziiplina-organoak prozedura bertan behera uztea erabakiko du, epaileak ebazpena eman arte.

2.-Edonola ere, diziiplina-organoak kautelazko neurriak har ditzake.

29. artikulua: Diziiplina- eta administrazio-erantzukizunak aldi berean gertatzea.

1.- Gertaera batek Kirol Legean eta haren garapeneko araudi publikoetan araututako administrazio-erantzukizunak eta araudi honetan aurreikusitako diziiplina-erantzukizunak badakartza, Euskadiko Txirrindularitza Federazioko diziiplina organoak, ofizioz edo auzialdi bidez, administrazio-organo eskudunari jakinarazi beharko dio. Hala ere, diziiplina-prozedura izapide dezake.

2.- Diziiplina-organoak administrazio-erantzukizunak eksklusiboki eragin ditzaketen gertaeren berri badu, aurrekariak administrazio-organo eskudunei jakinaraziko dizkie.

30. artikulua: 1.- Diziiplina-organoak, halaber, espedientea hasteran kautelazko neurriak hartzeko erabakia har dezake, epaiaren eraginkortasuna babesteko edo erremediorik gabeko kalteak saihesteko.

Neurri horiek mantenduko dira espedientea izapidetu bitartean eta ebazten den arte, eta haien berri eman beharko zaie interesdunei, dagokion errekurtoa jar dezaten.

2.- Ezingo dira legeak babesteko eskubideak urratzen dituzten kautelazko neurriak hartu edo aplikatu.



31. artikulua: 1.- Interesdunek prozeduraren edozein fasetan egin diezaiekete uko beren asmoei, baina horrek uko egin duenari bakarrik eragingo dio.

2.- Diziplina-epaile bakarraren edo apelazio-epaile bakarraren aurrean uko egin beharko dute, idatziz edo ahoz, haren aurrean aurkeztuta. Azkeneko kasu horretan, dagokion eginbidea idatzi eta sinatu beharko da.

3.- Uko egitean diziplina-espeditentearen itxi eta artxibatuko da, eskaerarik egin ez duten beste interesdun batzuk ez badaude edo diziplina-epaile bakarrak edo apelazio-epaile bakarrak prozedurari jarraipena ematea erabakitzen badu, interes orokorreko arrazoiak direla eta.

II. kapitulua: Ohiko prozedura

32. artikulua: 1.- Kapitulu honek kirol-diziplinaren prozedura arautzen du, eta diziplina-organoari dagokio prozedurari hasiera ematea, epailearen erabaki bidez.

2.- Epailearen erabakiak datu hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Espedientea abiarazteko arrazoiaren aipamen laburra, eta gertaeren data.
- b) Espedientearen hasiera-data.
- c) Interesdunak edo kaltetuak.
- d) Hala badagokio, jada hartutako kautelazko neurriak.
- e) Hala badagokio, diziplina-organoak eskatutako proba-baliabideak, edo espeditenteari atxiki zaizkion dokumentuak, diziplina-organoak edo hirugarren batek hala eskatuta.

3.- Epailearen erabakiaren berri emango zaie interesdunei.

33. artikulua: Diziplina-organoak ustezko arau-hauste baten salaketa jaso edo urratze baten berri badu, isilpeko informazioaren instrukzioa egitea erabaki dezake, espedientea abiarazteko, edo, hala badagokio,



espedientea artxibatzeneko ebazpena eman aurretik.

34. artikulua: 1.- Behin espedientea abiarazita eta abiarazi dela jakinarazita, jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean, proba-fasea irekiko du. Fase horrek hogeitun egun iraungo ditu gehienez ere, eta bost egun, gutxienez, eta behar diren proba-eginbideak burutuko dira, gertakariak argitzeko eta horietatik emandako erantzukizunak zehazteko. Dena dela, hala badagokio, diziplina-organoak egoki deritzon kautelazko neurriak har ditzake.

Diziplina-organoari dagokio burutu beharreko proba-eginbideak zehaztea, diziplina-organoak hala eskatuta edo interesdunek eskaera edo proposamen idatziz aurkeztuta. Interesdunek aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkeztuko dute eskaera edo proposamena, eta jakinarazi beharko zaie antolatutako edo onartutako probak non eta noiz egingo diren.

2.- Espedientea izapidetzeko eta ebazteko gertakari garrantzitsu oro zuzenbideak onartutako edozein probaren bidez egiazta daiteke.

3.- Diziplina-organoak proba onartzea edo ukatzea erabaki dezake, eta horren aurka ezingo da errekurtsorik jarri. Hala ere, interesdunak eskaera egin dezake, ebazpenaren aurreko audientzia-izapidean nahiz ebazpen horren kontra dagozkion errekurtsioetan.

35. artikulua: 1.- Gauzatutako jarduerak aintzat hartuta, karguen plegua egingo da, proba-epea amaitu eta hurrengo hamar egunetan, eta bertan jasoko dira egotzitako karguak, egindako proben emaitzak eta espedientea ebazteko proposamena. Hori guztia interesdunei jakinaraziko zaie, jakinarazpena egin eta hamar egun balioduneko epean beren eskubideen eta interesen defentsan egoki deritzotena adieraz dezaten.

2.- Karguen pleguaren eta ebazpen-proposamenari erantzunez, edo epea amaituta interesdunek izapidetik egin ez badute, hamar eguneko epean diziplina-organoak hasierako ebazpen-proposamena mantentzea edo egindako alegazioen arabera aldatzea erabakiko du.



3.- Erabakia hobeto hornitzeko asmoz, diziiplina-organoak ebazpena emateko epea eten, eta interesdunek proba-eginbideak burutzeko agindua eman dezake, proposamen horiek epe barruan aurkeztu eta proposamengileari egotz ezin dakizkikeen arrazoiengatik burutu ez direnean.

36. artikulua: Ebazpenak amaiera eman diezaioke espedienteari, aurkez daitezkeen federazio-apelazioaren errekurtsuari edo bigarren instantziako errekurtsuari kalterik egin gabe.

III. kapitulua: Ezohiko prozedura

37. artikulua: 1.- Diziiplina-organoak berehala esku hartu behar badu, joko-arauak urratu direlako edo kirol-lehiaketa batean edo horren ondorioz arau-haustea izan delako, lehiaketa behar bezala garatzen dela bermatze aldera, diziiplina-organoak interesdunen alegazioak eta proben aurkezpena aldi berean izapide ditzake eta alegazioak ahoz egitea erabaki. Proben artean, aparteko garrantzia izango dute arbitroaren aktak edo arbitroaren edo Federazioko ordezkariaren txostenak. Ildo beretik, ebazpena beharrezko premiazkotasunarekin emango du, lehiaketa behar bezala garatzen dela edo aurrera doala bermatzeko.

2.- Diziiplina-organoak, halaber, behin behinean etetea edo kautelazko neurriak ezartzea erabaki ditzake.

3.- Interesdunen alde aurreko audientzia mantenduko da, eta hartutako ebazpenen kontra dagozkion errekurtsuak jartzeko eskubidea ere.

38. artikulua: 1.- Federazioak arbitroen, epaileen edo pertsonen kargu uzten ditu joko- eta lehiaketa-arauen kontrol-lanak, eta haiek hartutako erabakien kontrako erreklamazioak berrogeita zortzi orduko epean egin beharko dira, arau-hausleak edo taldeko ordezkariak akta jaso duenetik. Edonola ere, alegazioen idazkian proposatu beharko da zein proba egin nahi den.



2.- Aurreko epea amaitu eta hurrengo bost egunetan, diziplina-organoak kontra-egitea edo erreklamazioa ebatziko du. Epea zabal daiteke, ordea, proposatuko proba proposamena onartu eta hurrengo bost egunetan gauzatu ezin badaiteke. Dena den, epea ezingo da hamar egunetik gorakoa izan.

IV. kapitulua: Jakinarazpenak eta errekurtsioak

39. artikulua: 1.- Kirol-diziplinaren prozeduretan emandako erabakiak eta ebazpenak arrazoitu beharko dira, eta interesdunei jakinaraziko zaizkie, hamar eguneko epean gehienez ere, ohiko prozeduran, eta bost eguneko epean, ezohiko prozeduran. Horrez gain, jakinarazpenetan erabakiak edo kasu bakoitzean dagozkion akordioak eta erreklamazioak edo errekurtsioak jasota egon beharko dira.

2.- Jakinarazpenak interesdunen helbideak edo egoitza sozialean egingo dira, gutun ziurtatua, telegrama edo jaso izana bermatzen duen beste edozein komunikazio-bide erabilita.

3.- Akordioaren edo ebazpenaren garrantziagatik edo ondorioengatik hala komenigarria bada, eskumeneko diziplina-organoak hori argitaratzeko, hedatzeko, edo jendaurrean jakinarazteko erabakia har dezake, pertsonen ohore-eskubidea eta intimitatea errespetatuz betiere, Indarrean dagoen legediari jarraiki.

4.- Espresuki ezartzen da Euskadiko Txirrindularitza Federazioko diziplina-ebazpenak eta hartzen diren kautelazko neurriak erakundearen komunikabideetan argitara daitezkeela, interesdunen nortasuna (izen-abizenak) bertan adierazita. Zentzu horretan, agindu hau argitalpena gaitzen duen xedapen arauemailetzat joko da, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legedia betez.

40. artikulua: 1.- Araudi honetan edo dagozkion estatutu- xedapenetan edo xedapen arauemailetan erreklamazioetarako epea espresuki ezarrita ez badago, interesdunek hamar eguneko epea dute erreklamazioak edo errekurtsioak jartzeko.

2.- Araudi honetan edo dagozkion estatutu-xedapenetan edo xedapen arauemailetan epea espresuki ezarrita ez badago, kirol-diziplinaren

arloan egindako erreklamazioak edo errekursoak atzera bota edo ukatuko dira, jarri eta hogeita hamar eguneko epean. Hala ere, diziplina-organoak akordioa edo ebazpen espresa emateko eskumena izango du.

3.- Aurreko puntuetan adierazitako epeei dagokienez, lehenengo epea indarrean egongo da erreklamazioaren edo errekursoaren jatorri izan den akordioa edo ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta, bigarren epea, berriz, erreklamazioa edo errekurtoa atzera bota eta hurrengo egunetik aurrera, artikulua honetan jasotakoa betez.

41. artikulua: Euskadiko Federazioaren diziplina-organoak eta —hala badagokio— lurralde-federazioetako diziplina-epaileak edo -batzordeak lehen auzialdian emandako diziplina-ebazpenen kontrako errekurtoa jar dezakete interesdunek, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren apelazio-epaile bakarraren aurrean.

42. artikulua: 1.- Errekurtsoak idatziz aurkeztuko dira, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren helbidean edo egoitzan, edo, hala badagokio, lurralde-federazioan, apelazio-epaile bakarrari zuzenduta. Administrazio-prozedura orokorra arautzen duten xedapenek jasotako tokietan ere aurkez daitezke.

2.- Errekurtso-idazkiek datu hauek bildu beharko dituzte:

a) Errekurtso-egilearen eta gaian interesa duten gainontzeko pertsonen identifikazio-datuak, eta horien legezatasun aktiboaren edo pasiboaren justifikazioa.

b) Errekurtsoa eragin duen aktaren, akordioaren edo ebazpenaren deskribapen argia, eta espresa denean, baita aktaren, akordioaren edo ebazpenaren kopia ere, edo, behintzat, haren espediente-zenbakia eta data.

c) Errekurtsoa sortu duten alegazioen azalpena, eta horiek zer funtsetan edo agindutan oinarritzen diren.

d) Hala badagokio, bigarren instantziarako proposatutako proba-eginbideak.

e) Eta adierazitako asmoen azalpen zuzena eta zehatza.



3.- Errekurtsoarekin batera egiaztagiria aurkeztu beharko da, Euskadiko Txirrindularitza Federazioan 50 euroko gordailua egin dela bermatzeko. Zenbateko hori interesdunari itzuliko zaio, ebazpena haren aldekoa bada.

4.- Ebazpena errekurtsoa jarri eta hogeita hamar eguneko epean emango da, gehienez ere. Ezohiko prozeduran emandako ebazpen baten aurkako errekurtsoa denean, epea sei egunekoa izango da, edo txikiagoa, aldez aurretik horrela zehazten bada.

43. artikulua: Errekurtsoa aurkezteak ez du esan nahi errekurritutako epaia ez dela betearaziko, apelazio-organoak horrela erabakitzen ez badu, ofizios edo interesdunak hala eskatuta.

44. artikulua: 1.- Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren apelazio-organoak emandako diziplina-akordioek- eta -ebazpenek amaiera ematen diote federazio-bideari, eta errekurtsoa jar dakieke Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean.

2.- Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak emandako diziplina-akordioek eta – ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta errekurtsoa jar dakieke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, aplikaziozko jurisdikzio-arauak betez.

45. artikulua: Euskadiko Txirrindularitza Federazioak ezarritako zigorren liburua edo erregistroa edukiko du, datu hauek jasota geratzeko: ezarritako zigorra, zein egunetan jarri zen, preskripzio-epeak, eta aldaketa-kausaren eta lehengoratze-eskubidearen aldiberekotasuna.

46. artikulua: Prozedurari dagokionez, osagarri gisa aplikaziozkoa izango da, Euskadiko Kirol Legeen eta kirol-diziplina arautzen duten Araudi Publikoetan jasotakoa, eta, hala badagokio, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Estatutuetan eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duten arauetan aurreikusitakoa.

III. TITULUA.- DIZIPLINA ARAUBIDEA, DOPINAREKIN LOTUTAKO ARAU HAUSTEEI DAGOKIENEZ



47. artikulua: Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren baitan, arau-hausteeekin eta zigor-erregimenarekin, diziiplina-prozedurekin eta dopin-arauak haustearekin lotutako beste aspektuei dagokionez, une bakoitzean indarrean dagoen Dopinaren aurkako Araudia beteko da. Dopinaren aurkako Araudia arau berezia edo zehatza izango da, eta arlo horretako kirol-diziplinaren sistema zigortzailearekin lotutako guztia hartuko du barne.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehena.- Epeak zenbatzerakoan, Euskadiko Txirrindularitza Federazioko egoitza zein udalerritan dagoen hartuko da aintzat, eta bertako egutegi ofiziala jarraituko da.

Bigarrena.- Diziiplina-araudi hauetan jasotako erreferentzia eta igorpen arauemaileek erreferentzia egiten diete gaur egun indarrean daudenei, eta etorkizunean ordezkioak izan daitezkeenei edo araudi hau indarrean sartzen denean uneko arauak gara edo osa ditzaketenei.

Hirugarrena.- Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Diziplinaren aurkako Araudi hau euskaraz eta gaztelaniaz dago argitaratuta. Hizkuntza batean eta bestean argitaratutako araudien artean desadostasunak edo diferentziak ematen badira, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean sartu aurretik abiarazitako diziiplina-prozedurek aurreko araudia bete beharko dute, interesdunek araudi honen alderdi jakin batzuei men egin nahi ez badiete, onuragarriagoak zaizkielako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Aldez aurretik indarrean zeuden federazio-araudiak edo erregelamenduak indargabetuko dira, Araudi honetan aurreikusitakoaren aurkakoak badira.



AZKENEKO XEDAPENAK

Lehena.- Euskadiko kirol-diziplinaren arloan une bakoitzean indarrean dauden xedapen arauemaileek izaera osagarria izango dute, eta araudi honetan jaso gabeko guztia arautuko dute.

Bigarrena.- Araudi hau indarrean egongo da Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren batzar nagusian onartzen denetik, baina aurrena Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak onartu eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu beharko da.

JOSE LUIS ARRIETA LAZKANO

EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA PRESIDENTEA

LUIS I. IRISARRI ALLI

*EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAREN IDAZKARI
OROKORRA*